

ZABORTEGI GLOBALA

Atacamako basamortuaren ekosistema ahula munduko zabortegi bihurtu dute

Tonaka arropa barreiatu dago Alto Hospicio udalerria inguratzen duten hegaldi idorretan, Tarapaca eskualdean, Santiagotik 1.800 kilometrora, iparraldean.

Ondoko Iquique hirian, AEBetatik, Japoniatik edo Koreatik iritsitako milaka auto desegin metatzen dira, eta 100.000 kilometro karratu baino gehiagoko basamortu honetako beste toki batzuetan, aldiz, paisaia ehunka gorpil ha-gunek desitxuratzen dute.

Txile 40 urte baino gehiagoz espezializatu da bigarren esku-ko arroparen merkataritzan: kontsumitzaileek baztertutako arropak, saltokien likidazioaren ondorenak eta mundu osoko karitate lanek banatutakoak, besteak beste.

Txileko aduanen arabera, 2021ean 46.285 tona arropa erabili ziren herrialdean.

Arropa, autoak bezala, Iquiqueko portuko zona frankoan sartzen da. Txileko edo Latinoamerikako beste herrialde batzuetako bigarren eskuko merkatura zuzenduta daude.

Auto gehienak Perura, Boliviara edo Paraguarira esportatzen dituzte berriro. Hala ere, askok Iquiqueko kaleetan edo inguruko muinoen magaletan amaitzen dute.

Hain zuzen, ekoiztutako arropa eta oinetakoen erdiek baino gehiagok –kostu baxuan eta katean ekoiztiak, batez ere Asian– basamortuan sakabandututa amaitzen dute zirkuituaren pilaketaren ondorioz.

Aldiro, legez kanpoko zabortegi horiek erre egiten dituzte eragozpenak murrizteko, eta oso ke toxikoa sortzen da.

📁 **TXILE / GAUR8**

Atacamako basamortuan, Txileko iparraldean, erabilitako arropa tonaka pilatzen da. Eta baita erabiltzen ez diren ibilgailuak edo gorpilak ere, mundu osokoak. Mehatxu handia paregabeko ekosistema ahul horrentzat, edozein aldaketak ondorioak dituelako bertan bizi diren espezieentzat.

«Su horiek oso toxikoak dira, sortzen dena plastiko erre delako», esan zuen Paulin Silvak, martxoan ingurumen gaietako epaitegi batean Txileko Estatuaren aurkako salaketa jarri zuen abokatuak.

Jatorriz Iquiquekoa da Silva eta Estatuak zabortegi horien aurrean duen pasibotasuna bereziki salatzen du, «ingurumen arriskua» eta «giza osasunerako arriskua» baitira.

«Mundu osoko arduragabeak datoz hona beren zaborra botatzera», deitoratzen du Patricia Ferreirak, Alto Hospicio-ko alkateak. Txileko hiririk txiroenetako bat da.

«Leku bat garbitzen dugu eta beste eremu bat kutsatzen digute», kexu agertzen da, arazoaren aurrean ezinean dabil-tzala esanez. «Abandonatuta sentitzen gara. Gure lurra sakrifikatzen ari dela sentitzen dugu», dio haserre.

Munduko basamortu lehorrenetako bat bada ere –prezipitazioak ez dira urtean 20 milimetrora iristen eremu batzuetan–, Atacamak ekosistema bakarra du.

Alderik lehorrenean, Antofagastatik gertu, zientzialariek, tartean Cristina Dorador biologo txiletarrak, muturreko bizimoduak aurkitu dituzte: ia urik eta mantenu-gairik gabe bizitzeko gai diren mikroorganismoak,

Argazki nagusian, ehunka ibilgailu pilatuta Atacamako basamortuan. Behean, arropa, ia berria, La Pampa sektorean botata, Alto Hospicio. Eta, ondoan, zapatak, beste hondakin batzuen artean, Esmeralda sektorean.

Martin BERNETTI | AFP





muturreko eguzki erradiazioa jaso arren.

Mikroorganismo horiek Lurreko eboluzioaren eta biziraupenaren sekretuak izan ditza-kete, baita beste planeta batzuetakoak ere.

EKOSISTEMA OSO HAUSKORRA

Itsasertzetik gertu dauden leku batzuetan, behe lainoak landaredia eta animalia ornodunak garatzea ahalbidetzen du, Pablo Guerrero Concepcio-neko Unibertsitateko Botanikako irakasle eta Ekologia eta Biodibertsitate Institutuko (IEB) ikertzaileak azaldu due-nez.

«Leku horietan bizia egotea, nolabait, ustekabeko gertaera da, ekosistema oso hauskorra

dela kontuan hartuta. Euriteen eta lainoen erregimenean gertatzen den edozein aldaketak edo gutxitzek berehalako ondorioak ditu bertan bizi diren espezieentzat».

Nagusiki moreak diren dozenaka lore espezie loratzen dira prezipitazioa batez bestekoa baino handiagoa denean. Haien haziak, hondar azpian lurperaturik, hainbat hamarkadatan biziraun dezakete, erretzeko eta gero loratzeko behar duten gutxieneko ur kopuruaren zain dauden bitartean.

Hala ere, klima aldaketaren ondorioz, baina baita kutsadura eta hirien hedapenaren ondorioz ere, kaktus espezie batzuk desagertu egin dira.

Emakume bat pneumatiko multzo handi baten gainean zabor artean miatzen, Alto Hospicio udalean. Behean, legez kanpoko zabortegien aireko ikuspegia, Esmeralda sektorean.

Martin BERNETTI | AFP

«Kaktus espezie batzuk desagertutzat jotzen dira. Zoritarrez, fenomeno hau eskala handian ikusten dugu, eta azken urteetan sistematikoki okerrerako joerarekin», dio Guerrerok.

Jende gehienak Atacamako basamortua «muino biluziak» edo «meategiak» besterik ez dela uste duela deitoratzen du Carmen Serrano Raices Endemicas ingurumenaren aldeko erakundearen presidentek.

Batzuetan harritsua, beste batzuetan hareatsua den azalera handi horretan munduko kobre meategirik handienak daude, baita litioa erauztekoak ere, eta jarduera bata zein besteak lur azpiko ur kopuru handiak kontsumitzen dituzte.